

## EUSKAL ALFABETOAREN LETREN IZENAK

Euskaraz egindako irakaskuntza eta, oro har, erabilera soziala, guztiok dakigunez, goraka ari dira aspaldion eta horrek, noski, hainbat eta hainbat arlotan terminologia zehaztea eskatzen du.

Euskaltzaindiaren egitekoa, beste batzuren artean, sortzen ari diren premia hoiei erantzuten ahalegintzea da eta bide horrexetan barrena abiatuz moldatu izan dira, besteak beste, batasunerako erregelak, aditz laguntzaile eta sintetikoek paradigmatik, ikastolarako hiztegiak, pertsona eta merkatalgo izendegiak, herri, eta herritarren izenak, banka hiztegia etab. Bide beretik dator halaber gaurko erabaki hau: euskal alfabetoaren letren izenena, hain zuzen ere. Arazo konbentzional bada ere ikuspegi batetik, beharrezkoa iruditu zaio Euskaltzaindiari orientabide hau hartzea.

Horretarako Uztaileko eta Iraileko batzarretan aurkeztu ziren X. Kintana eta A. Zatarain euskaltzain urgazleen proposamen-txostenak eta Urrian eta gaur aztertu dira euskaltzainen artean banan banan.

Beraz, Euskaltzaindiak gaur *Euskal alfabetoaren letren izenez* erabaki hau hartzen du eta jakinarazi:

“Euskal alfabeto edo ABC- a hogeitazazpi letrek osatzen dute, ordena honetan jarriak, beren izena ondokoa dutelarik:

Letra	Izena	Letra	Izena	Letra	Izena
a	a	j	iota	r	erre
b	be	k	ka	s	ese
c	ze	l	ele	t	te
d	de	m	eme	u	u
e	e	n	ene	v	uve
f	efe	ñ	eñe	w	uve bikoitza
g	ge	o	o	x	ixa
h	hatxe	p	pe	y	i grekoa
i	i	q	ku	z	zeta

Letra hauetatik c eta beronen aldakia ç (ze hautsia), q, v, w, eta y, ohizko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, gure alfabetoan sartzen dira.

Komeni da, beraz, euskal hiztegiak *abc* honetako letra-ordenaren arauera sailkatzea."

Donostian, 1979.eko Azaroaren 30ean.